

## **BALIO PROPOSAMENA:**

### **Zer behar edo arazo konpontzen dugu?**

Osasun arazoren bat duen pertsona bati, edo zehazki egun batean ongi sentitzen ez den pertsona bati, pilula etxetik kanpo hartzearen prozesua errezten diogu. Dena botilan edukiko duelako, bai pilulak, baita ura ere. Ez du taberna batera ur bila joan beharko, ezta poltso edo motxilan ura eta pilulen kaxatxoak aparte eraman beharko.

### **Zerk bereizten gaitu eta, zergaitik egongo da bezeroa guri ordaintzeko prest?**

Gure enpresa besteengandik bereizten duen faktore nagusietako bat balio kualitatiboarena da. Gure produktuaren diseinuan ikus dezakegu hau; izan ere, diseinu mota honek bezeroei erosotasun handia emango die, eta, aldi berean, pertsonalizatzeko aukera izango dute haien beharren arabera. Alde batetik, behar duten pilula kantitatearen arabera, ur-botilaren tamaina eta kaxa kantitatea aldatuko lirateke. Bestetik, itxurari dagokionez, hainbat kolore izango dituzte eskuragarri haien gustu edo nahien arabera.

Gainera, produktu berritzailea da duen originaltasunagatik, hau da, orain arte ikusi ez den produktua da.

Objektu honek ematen digun beste abantaila garrantzitasuenetako bat arrisku murrizketa da. Azken batean, pilulak modu egokian hartzea ezinbestekoa da osasun arazoak ekiditeko; beraz, botilak ematen duen erosotasunak une batzuetan izan ditzakegun arriskuak gutxituko dizkigu.

Hau guztiaz gain, gure enpresak sortzen duen botila honen beste ezaugarri nagusietako bat erabilerraztasuna da, erabiltzeko duen erreztasunagatik. Zehaztuz, denok ezagutzen dugun botila horietako bat izango da, desberdintasun bakarra, edukiko dituen kaxa txikiak izango dira, antolatzen lagunduko digutenak eta desberdintzeko errazak izango direnak.

Azkenik, eskuragarritasunari dagokionez, gure enpresak zerbitzu azkar eta erraz bat emango die erosleei eta ez dute produktua eskuratzeko arazorik edukiko.